

1. Aurkezpena

Abenduaren 12ko 7/2002 Legea, Sanitatearen arloko Aldez Aurreko Borondateei buruzkoa, herritarrak berari dagozkion erabaki klinikoei buruz bere borondatea aldeztuetatik adierazteko eskubidea erabili dezan eman da.

Arau honen oinarrian, ardatz gisa, giza duintasunarenganako errespetua dago. Arautegi honen azken helburua duintasun hori babestea eta bizitzaren bukaeran pertsonen autonomia bideratzea da, baina, hori bete ahal izateko, gaiak eskatzen duen informazioa behar da, gai honetan planteatutako daitezkeen hainbeste arazo konpondu ahal izateko.

Zer da aldez aurreko borondateei buruzko agiri bat? Nola betetzen da?

Zein orientabide eman daitezke? Zein da ordezkariaren papera?

Zeinek eta noiz izan dezakete bere edukiaren berri?

Egin daitezkeen galderen arteko asko zure eskuetan jarri dugun gida-liburu erraz honetan aurkituko dituzu. Asmo hau aurrera ateratzeko, bat egin dute Osakidetzako eta Osasun Saileko zenbait taldek.

Lan hau ez dago inolaz ere itxita; aitzitik, bere eboluzioa izan dezake, gure inguruko giza errealitateara egokitzen den ahala eta denok harrapatzen gaituen etengabeko ikasi behar diren ondorioz.

Gida-liburu honek gaixo dagoen pertsonarenganako errespetua du helburu, eskubideei eta duintasunari dagokionez, eta babesgarri gerta daiteke profesionalentzat, eta partaide bihurtzen ditu, gaixoarengan eragina duten erabakiak hartzeko garaian.

Azken batean, aldez aurreko borondateak zainketen planifikazioaren esparruan daude, eta hiritarrak bere osasunari buruzko erabakiak, bere balore pertsonalekin ados eta mediku-paziente-familiaren harreman-esparruan, hausnartzeko eta erabakietan inplikatzeko prozesu positibo baten eran ulertu behar dira.

Baimen informatuan hartzen du oinarri, praktika mediko on baten adierazpen gisa, eta bere bitartez, informazio egokia eskainiz, gaixo dagoen pertsonaren borondatea errespetatzen du. Hori dela-eta, egin aurreko orientabideak garrantzia handia hartzen du; izan ere, berme bihurtzen da behar bezala bete ahal izateko.

Garrantzi honetako agiria egin ondoren, nahitaezkoa gertatzen da eskuragarri



dagoen erregistro batean gordeta egotea; nolahi ere, isilpekotasun-neurri eta sarrera-murrizketek babestuta.

Pertsonak, borondatez, sanitatearen arloko aldez aurreko borondateei buruzko agirien egileste, aldatze, ordezte, eta baliogabetzearen inskripzioa egiteko Erregistroa nola sortu, azaroaren 4ko 270/2003 Dekretuaren bitartez arautu da. Dekretu hori hilabete bereko 28ko EHAAAn argitaratu zen.

Erregistro hau Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailera atxikita egongo da. Erregistrotutako agirien isilpekotasuneko printzipioei eta antzeko beste erregistroekiko interkonexioko printzipioei jarraiki funtzionatuko du, eta bere helburua pertsona egilesleen aldez aurreko borondateak behar bezala betetzea eta atentzio indibidualizatua bermatzea izango da.

Liburu honetan azaltzen da, era berean, inskribatzeko prozesua nola egin, zin egileak atenditzen dituzten zentroek euren berri nola jakin eta eurek inskribatutako agirietara nola heldu.

Erregistro honek, pertsonak adierazteko eta bere autonomia gauzatzeko gaitasunik ez daukan garaian, bere edukiaren berri emango die bere osasunaren inguruan erabaki behar duten profesionalei, aldez aurretik azaldu dituen jarraibideak bete ahal izan ditzaten.

Horrela, bada, gure asmoa da kontsultak azkar, bizkor eta sare asistentzial osotik egiteko aukera ematea, euren autonomia gauzatu ezin dutenen eta asistentzia-taldeek beharrak kontuan hartuko dituen informazio-baliabideak erabiliz.

Orientabide hauek baliagarri bihurtuko ditugu zure lankidetzarekin, eta, horrela gertatuko dela sinetsita, eskerrak eman nahi dizkiet gida-liburu hau argitaratzeko lan egin dutenei.

Gabriel M^a Inclán Iribar
OSASUN SAILBURUA

2. Sarrera

Gure garapenean, pertsonak garen aldetik, besteekin eta gure inguruko kultura eta ohiturekin ditugun etengabeko harremanek, pixkanaka, geure pentsamolde propioa eratzen laguntzen digute, eta ideia berriak sortzeko gauza garela konturatzen gara, edo besteen ideiak hartu eta geureganatzeko. Horrek iruditzen zaigun modurik egokienean jokatzera eramaten gaitu momentu bakoitzean. Orduan konturatzen gara geure pentsamendu eta ekintzen jabeak garela.

Pentsamenduaren heldutasun horrek gaitasuna ematen digu norberarentzat edo besteentzat garrantzitsua den borondatezko edozein ekintza adierazteko.

Heldutasun horren erabileran kokatu ditzakegu Aldez Aurreko Borondateak, geure bizitzan zehar hartzen dugun beste edozein erabaki bezalaxe. Besteek ez bezala, erabaki horrek berebiziko garrantzia du zerikusia duelako guretzat nahi genukeenarekin, egoera larri batengatik gure borondatea adierazi eta erabiltzeko moduan ez gaudenean.

6

Aldez Aurreko Borondateen Dokumentuaren helburua da dokumentua sinatzen duenaren bidea erraztea; horrela, momentu zehatz hori ailegatzten denean, inork garbi utzi badu aurretik, non, noiz eta nola tratatzea nahi duen, ezin dugu onartu norbaitek borondate horren kontra jokatzea

Zainketak planifikatzeak duen garrantziak eta Aldez Aurreko Borondateen Dokumentuaren erredakzioak helburuei, baldintzei, mugei, moduei eta ondorioei buruzko hausnarketa bat egitea aholkatzen dute. Gida honek hausnarketa hori egiten, ezagutzera ematen eta ezartzera bultzatzen lagundu nahi du, bai herritarren artean bai osasun eta zuzenbideko profesionalen artean.



3. Oinarri etikoa

Norberaren bizitzaren kudeaketa errespetatzeak (Autonomiako printzipio bioetikoan jaso) berekin darama pertsona heldu, gaitu, ondo informatu eta derrigortu gabeko guztiek tratamendu zehatz bat onartzen duten edo ez erabakitze eskubidea, hau da, bere ustez berarentzat egokia den tratamendua erabakitze eskubidea, batzuetan medikuen iritziarekin bat ez badator ere.

Iritzi propioa adieraztea ezinezkoa denean, Aldez Aurreko Borondateak dira gaixoaren eskubidea babesteko modurik onena. Borondate horiek izendatzeko, beste izen batzuk ere erabiltzen dira: aldez aurreko arauak, aldez aurreko jarraibideak edo bizi-testamentuak. Aldez Aurreko Borondateen bidez pertsona batek geroago hartu edo errefusatu nahi dituen osasunaren zainketak planifika ditzake, batez ere, gaixoak berak erabaki ezin duenerako. Erabakiak medikuaren eta pazientearen arteko harremanaren emaitza izan beharko, eta ahal den neurrian, pazienteak izendatutako ordezkari baten parte-hartzearekin eginda.

Edozeinek egin dezake, eta egoerak txarrera egingo duela aurreikus daitekeen gaixotasun kronikoetan esaterako, balio handikoa izan daiteke.

Pazienteek zainketa-plangintzan parte hartzeko eskubidea dute, eta profesional sanitarioek erantzukizun profesional eta legala dute parte-hartze hori bermatzeko. Kontuan hartu behar da praktika mediko bat ez dela ona, gaixoaren borondatea errespetatzen ez badu. Horrek ez du esan nahi tratamendua gaixoak ezarri behar duenik, baizik eta dauden arrazoizko aukerarik onenen artean hautatzea.

Aldez Aurreko Borondateen helburu nagusia da, pazienteak erabakitzeko gaitasuna galdu duenean, atentzio sanitarioa aldez aurretik adierazitakoaren araberakoa izan dadila ziurtatzea.

Bigarren mailako helburuak honako hauek dira: erabaki sanitarioak hartzeko prozesua hobetzea, gaixoaren ongizatea optimizatzea eta pertsona maiteen atsekabeak arintzea. Aldez Aurreko Borondateak tresna baliagarriak dira elkarrizketa hobetzeko, eta asistentziako harremana errazteko, bai gaixo eta bere ingurukoentzat bai profesionalentzat.

Beraz, Aldez Aurreko Borondateak zainketen plangintzan kokatzen dira, osasunari dagozkion erabakietan herritarren inplikazio eta hausnarketaren prozesu positibo gisa ulertuta, betiere, beren balore pertsonalekin adostuta, mediku/paziente/familiaren harremanen markoan.

Harreman sanitarioaren eremuan ahoz adieraz daiteke pazientearen borondatea, eta gero historia klinikoan jasota geratzen da. Dena dela, gaixoaren borondatea edozein egoeratan bete egingo dela ziurtatzeko, Aldez Aurreko Borondateak (AAB) en dokumentuen bidez gitea da biderik egokiena.

4. Euskarri legala

Europako Kontseiluaren *Giza eskubideei eta Biomedikuntzari buruzko Akordioak* –1997ko apirilaren 4an arautua eta “Convenio de Oviedo” izenaz ezagunagoa– eremu komun bat ezarri du giza eskubideak eta giza duintasuna babesteko biologiaren eta medikuntzaren aplikazioan. 9. artikuluan alde aurreko borondateak onartu eta honako hau esaten du: “interbentzioaren momentuan pazienteak bere nahia ezin badu adierazi, aurretik adierazitako nahiak hartuko dira kontuan”.

2003ko maiatzaren 16an indarrean jarri zen *Pazientearen Autonomia, eta Informazio eta Dokumentazio Klinikoko gaiei buruzko Eskubide eta Betebeharrak Erregulatzen dituen azaroaren 14ko 41/2002 Legea*. Lege honek osatu egiten ditu *Sanitateko Lege Orokorrak (1986)* printzipio gisa adierazitako aurreikuspenak, eta indarra eta tratu berezia ematen dio pazientearen autonomia-eskubideari, “pazienteak alde aurretik adierazitako nahiak aztertzen dituzten alde aurreko jarraibideei buruzko erregulazioa” sartzen du, eta ondoko hau erabakitzen du: “pertsonaren duintasunak, bere borondatearen autonomia eta intimitatearekiko errespetuak bideratuko dituzte informazio eta dokumentazio kliniko lortu, erabili, artxibatu, zaindu eta transmititzeko diren jarduera guztiak”. eta baita beste honetan ere: “Existitzen diren aukera klinikoei buruzko informazio egokia jaso ondoren, paziente edo erabiltzaile guztiak eskubidea dute libreki aukeratzeko”.

Eusko Legebiltzarrak “osasun alorreko alde aurreko borondateei buruzko” abenduaren 12ko 7/2002 Legea onartu zuen. Bertan esaten da “tratamenduari buruzko jarraibideak dagoeneko pertsona egilesleak sufritzen dituen gaixotasun edo lesioei buruzkoak izan daitezkeela, edo aurrerantzean ager daitezkeenei buruzkoak. Horrezaz gain, baliteke jarraibideek bestelako aurreikuspenak egitea: jaso nahi duen praktika kliniko egokiarekin bat datozen interbentzio medikoei buruzko aurreikuspenak sartzea, jaso nahi ez ditueni buruzkoak eta bizitzaren amaierarekin zerikusia duten beste gai batzuei buruzkoak” (2-4 artikulua) “eta pertsonak jaso nahi dituen interbentzio medikoei buruzko jarraibideak bere patologiarentzat desegokietsita daudenean. Desegokiespenen berri egon beharko du pazientearen historia klinikoan. (5-4 Artikulua)

2003ko azaroaren 28an argitaratu da azaroaren 4ko 270/2003 Dekretua EHAA, zeinak sortzen eta arautzen baitu Aldez Aurreko Borondateen Euskal Erregistroa.



5. Zer da Aldez Aurreko Borondateen Dokumentua?

Aldez Aurreko Borondateen Dokumentua idatzia da, eta mediku arduradunarentzat izaten da. Bertan adin nagusiko pertsona batek, horretarako epaileak ezgaitu ez duena, modu librean eta betebeharrak legei jarraiki kontuan hartu behar diren jarraibideak adierazten ditu, inoiz bere borondatea adierazteko gauza ez den egoeran egonez gero. Dokumentu horretan pertsonak ordezkaririk bat edo batzuk aukera ditzake, eta bere solaskide baliokide eta beharrezkoa izango da mediku edo talde sanitarioarekin, eta bera ordezkatuko du bere borondatea ezin duenean adierazi.

Mediku arduraduna, talde sanitarioa eta atentzio sanitarioko sistema behartuta daude kontuan hartu eta aplikatzera, betiere legeak ezartzen duenaren arabera.

6. Zer adieraz daiteke Aldez Aurreko Borondateen Dokumentuan?

Aldez Aurreko Borondateen Dokumentuan honako hauek adieraz daitezke idatziz:

1. Bizi-printzipioen adierazpena eta norberaren aukerak, non baloreen hierarkia ezartzen den, eta horren ondorioz, eremu sanitarioan hartu behar den edozein erabaki hartzen orientatu behar duten irizpideak. Bizitzaren azken momentuekin, edo mugatze fisiko edo psikikoko beste egoera larri batzuekin zerikusia duten balore eta aukera pertsonalak adieraz daitezke. Beste zehaztasun batzuk ere adieraz daitezke, esaterako, bizitzaren amaierako azken zainketak non jaso nahi diren (ospitalean, etxean...), organo-emailea izateko borondatea, asistentzia erlijiosoa jaso nahi den edo ez, autopsia egitea nahi duen edo ez, gorpua azterketa anatomikoetarako eman nahi den, etab.
2. Egoera sanitario zehatzak, zeinetan tratamendu edo zainketa jakin batzuk onartzea edo errefusatzea kontuan hartzea nahi den, batez ere, aukera eboluzio-aurreikuspenei buruzko informazioa edukitzen denean (gaixotasun kronikoen kasuan bezala).
3. Aurretik ikusitako egoeren aurrean egin daitezkeen jarduera medikoekin zerikusia duten jarraibideak eta mugak, hau da, behin behineko edo betiko ezintasunaren kasuan zein tratamendu edo zainketa jaso nahi diren eta zein ez. Esate baterako, bizi-euskarrien neurriak ez aplikatzeko eskatu daiteke (edo kentzeko, aplikatu baldin badira), adibidez: bihotz-biriketako bizkortzea, dialisia, lotura arnasmailu batekin, bizitza luzatzeko elikadura edo hidratazio artifizialak.
4. Ordezkarri bat edo batzuk aukeratzea, talde sanitarioaren aurrean solaskide balioduna izan dadin, pazienteak bere borondatea adierazi ezin duenean, eta jarraibideak bete eta interpretatzen ordezka dezan.

Ordezkarriari buruz honako hau zehaztu behar da:

- Ordezkatuaren borondatea ezagutu behar du
- Komeni da aurreko erabaki-prozesuan parte-hartzea.



- Ez du dokumentuaren edukiaren aurka egin behar, eta bertan adierazitako irizpide eta jarraibideen arabera jokatu behar du.
- Kontuan izanik ordezkariari esleitutako funtzio eta erabakiek duten berebiziko garrantzia, saiatu behar da edozein motatako interes-gatazkak eraginik ez edukitzen, eta ziurtatu behar da hartzen diren erabakiak pazientearen aldekoak izango direla; horregatik, legeak zehazten du ordezkaria ez duela izan behar, ez dokumentuaren lekukoek, ez alde aurreko borondateak aplikatu behar dituen mediku arduradunak, ez pertsona egilearen atentzio sanitarioa finantzatzen duten erakundeetako pertsonalak. Horrek guztiak ez ditu ordezkari izateko salbuesten, lotura afektiboagatik edo pazientearen familiarra izateagatik, bere interesei lehentasuna eman ahal dietenak.
- Aholkatzen da familiak jakitea ordezkaria zein izango den.
- Ordezkari bat baino gehiago aukeratuz gero, ezinbestekoa da beraien artean lehentasun hurrenkera bat ezartzea, eta bertan adierazi, zein den ordezkari titularra eta zein ordezkoa, azken hau titularrik ezean bakarrik egongo da.

11

7. AABen dokumentuen ereduak

AABen dokumentuen eredu batzuk existitzen dira, eta, gogoeta pertsonala egin ostean eta profesional sanitarioarekin elkarrizketatu ondoren, baliagarriak izan daitezke dokumentu pertsonalizatua egiten laguntzeko. Gida honekin batera doa eredu izan daitekeena, lehenago proposatutako beste eredu batzuetan oinarritua.

z e r a d i e r a z d a i t e k e A A B e n d o k u m e n t u a n ?

8. AABen dokumentu bat noiz da baliozkoa?

AABen dokumentu bat baliozkoa izateko, sinatzen duen pertsonak heldua izan behar du, gaitasuna eduki behar du, eta askatasunez egina.

AABen dokumentua idatziz formalizatu behar da, hiru mota hauetako batean:

- hiru lekukoren aurrean (lekukoek helduak izan behar dute, erabateko gaitasuna eduki eta egilesleak ez du ezkontza-harremanik eduki behar, ez elkartzeko librerik edo izateko bikoterik, ez senidetasunik –bigarren mailaraino– edo ondarezko harremanik). Komeni da lekukoek dokumentuaren edukia ezagutzea, haiek ziurta dezaten dokumentua libreki sinatu duela, eta ondo informatu ondoren.
- notarioaren aurrean.
- Aldez Aurreko Borondateen Euskal Erregistroko funtzionario edo langile publiko arduradunaren aurrean. Aipatutako Erregistroa Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Ikerlan eta Garapen Sanitarioko Zuzendaritzan dago, Gasteizen. Tel: 945 01 92 54; Email: registrodevoluntadesanticipadas-san@ej-gv.es

12

9. Aldaketa, ordezkapena eta baliogabetzea

Dokumentua aldatu daiteke: iritzi-aldaketa bat islatzeko, zabaltzeko, edo gaur egun hobeto ezagutzen diren egoeretara egokitzeko. Bi urtez behin, gutxienez, gaurlotzea aholkatzen da, denbora horretatik aurrera ezin delako hartutako erabakien egonkortasuna ziurtatu.

Aldez aurreko borondateak noiznahi aldatu, ordezkatu edo baliogabetu daitezke; beti ere AAB horiek egilesteke Legeak eskatzen duen modu berean.

Aldez aurreko borondateen dokumentua aldatu, ordezkatu edo baliogabetu baldin bada, egiletsitako azken dokumentuaren edukia hartuko da kontuan.

Dena den, komeni da dokumentu berriari aurrekoari eman zitzaion publizitate berbera ematea.



10. AABen dokumentuaren erabilera eta mugak

AABen dokumentua aplikatu ahal izango da pertsonak gaitasuna, jarduteko askatasuna eta gauzak adierazteko gaitasuna galtzen dituenengan. Erabaki sanitarioa hartu behar denean, pertsona gai baldin bada, berak adierazitakoa gailenduko da AABen dokumentuetan adierazitako jarraibideen aurrean

AABen dokumentua eginga edukitzeak kontuan hartzeko beharra darama berekin, erabaki klinikoak hartzen direnean.

AABen dokumentu bat aplikatu behar denean, hobe da irakurketa zuhur bat egitea ahal den gehiena errespetatuz, dokumentuaren jarraipen estu eta literala egitea baino.

Hautatutako ordezkari bat baldin badago, laguntza eskatuko zaio AABen dokumentua interpretatzeko.

AABen dokumentuan adierazitako lehentasunak jarraitu ezean, mediku arduradunak idatziz historia klinikoan arrazoitu beharko ditu erabakia hartzeko arrazoiak.

AABen dokumentuak aplikatzeko, legeak dituen mugak honako hauek dira:

1. pazienteak adierazitako borondatea indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren aurka ez joatea.
2. pazienteak nahi dituen interbentzio medikoak bere gaixotasunarentzat desegokiespenik ez edukitzea.
3. egoera kliniko aurreikusitakoa ez izatea, eta dokumentua sinatzean egilesleak aurreikusitako baldintzekin bat ez etortzea; hau da, dokumentuan aurreikusitako egoera eta errealitatekoa desberdinak izatea

Egoera horietan adierazitako borondateak ez dira kontuan izango.

11. Nola eman ezagutzera AABen dokumentu bat?

Gomendagarria da AABen dokumentua egin duen pertsonak bere asistentziaren mediku arduradunari eta gehienetan atenditzen duten zentro sanitarioari ezagutzera ematea historia klinikoan sartzeko, erabili behar den momentuan kontuan edukitzearren.

Pazienteak berekin eraman dezake beti AABen dokumentua, edo bere ordezkariak edo familiak eduki dezake.

AABen dokumentua prestatuta dagoenean, **Aldez Aurreko Borondateen Euskal Erregistroan** sartzeko komeni da, profesional sanitarioek errazago ezagutu ahal izateko, erabili behar dutenerako.

Erregistroa da AABen dokumentuak izaera ofiziala duela ziurtatzen duen tresna. Bere zereginak honako hauek dira:

- egindako AABen dokumentuak erregistroan sartu eta zaintza, eta baita ere beren aldaketen eta baliogabetzeenak.
- profesional sanitarioei AABen dokumentuen existentzia jakinaraztea.
- AABen dokumentuen edukia jakinaraztea, baimendutako eta legeztatutako pertsonak aurrez eskatuta, betiere, isilpea eta eskatzaileen identitatea ziurtatzen duten sistemak dituztelarik.

Erregistroak Estatuaren Erregistro zentral edo beste erregistroekiko harreman egokiak ezarri behar ditu, transmisio egokia ziurtatzeko eta duten informazioa partekatzeko.



12. AABen dokumentuaren abantailak eta zailtasunak

Abantailak

- Erabakiak hartu aurretik pazientea modu egokian informatu dutenez gero, pazienteak askoz hobeto ezagutzen du bere gaixotasuna.
- Medikua eta pazientearen arteko harreman hobetu egiten da. Pazienteak medikuarekin batera, erabakitzen du zer nahi duen eta noraino ailegatu nahi duen.
- Pazientearen balore etikoak ezagutzen direnez gero, errazago interpretatzen dira azken momentuekin zer ikusia duten nahiak.
- Aldez aurreko zainketa-plangintzak, geroago gerta daitekeenari aurrea hartuta, erabaki terapeutikoak hartzea errazten du.
- Praktika kliniko onak indartzen ditu.
- Egin nahi ez diren tratamenduak ekiditen ditu.
- Erabaki okerrak hartzeko arriskua txikitzen du.
- Estresa eta arazoak arintzen ditu, bai pazienteenak eta ingurukoenak bai profesionalenak.
- Profesional sanitarioei segurtasun etiko eta juridikoa ematen die.

Zailtasunak

- Denbora behar duen prozesua da.
- Bizitzaren amaieraren estutasunak aurretik ezagutzea eskatzen du.
- Gaurkotu gabe dauden AABen dokumentuak eta zalantzazko jarraibideak edo lehenetsun argiak ez dituztenak zailak dira interpretatzen.
- Batzuetan zaila izaten da AABen dokumentua zein momentu klinikotan aplikatu behar den jakitea.
- Baliteke pazientearen gaitasuna ebaluatu behar izatea.
- Erabakiak hartu behar direnean, beharrezkoa da AABen dokumentua eskura edukitzea, kontsultatu ahal izateko.

13. AABen dokumentua egin nahi dutenentzako edo egina dutenentzako aholkuak

- Aldez Aurreko Borondateen Dokumentu bat egiteko, profesional sanitarioen talde batzuek, etika asistentzialaren batzordeek edo erabiltzaileen elkarteek egindako ereduren bati jarraitu ahal zaio. AABen dokumentu bat egin nahi baduzu, komeni zaizu dokumentu horiek arretaz irakurtzea, baieztatu zure lehenetasunak eta baloreak islatzen dituen, eta bertan adierazten diren tratamendu mediko eta zainketak benetan nahi dituzun. Honi dagokionez kontuan izan behar da ABB dokumentuak gutxieneko eduki bat izan behar duela, azaroaren 4ko 270/2003 Dekretuko 7. artikulua ezartzen duena, zeinak, sortzen eta arautzen baitu Aldez Aurreko Borondateen Euskal Erregistroa. Gida honen eranskin gisa eredu bat sartu da, norberaren AABen dokumentua egiteko baliagarria izan daitekeena.
- Kontsulta iezaiozu zure familiako medikuari, eta komentatu berekin dokumentuaren edukia. Zure mediku espezialista eta gaixoen elkarteak ere lagungarriak izan daitezke, ezgaitasuna sortzen duen gaixotasunik baduzu, edo gaixotzeko arriskurik baduzu. Beraiek eman ahal dizkizute aholkurik onenak gaixotasun bati buruz, eta erabaki bat edo beste bat hartzearen ondorioei buruzkoak.
- Komeni da AABen dokumentua historia klinikoan idatziz adieraztea, erraztasun gehiagoz kontuan hartzeko, eta horretarako, egina daukanak kopia bat eman behar dio bere medikuari.
- Komenta itzazu hurbileko zeure familiarrekin eta hautatutako ordezkariarekin egin duzun dokumentuaren punturik garrantzitsuenak, horrek erraztuko baitu zure nahiak errespetatuak izatea, adierazi ezin dituzunean.
- Kontuan hartu behar duzu ezin dela legearen aurkako jarduerarik egin, zuk horrela eskatu arren. Aurretik informazio egokirik ez baduzu, orokorrean ez duzu tratamendu zehatzik errefusatu behar.
- Komenigarria da dokumentua noizean behin berriro irakurtzea, idatzita dagoenarekin oraindik ados zauden ikusteko; bestela, aldatu beharko duzu nahi berrietara egokitzeko.
- AABen dokumentua Euskal Autonomia Erkidegoan beti eskuragarri egongo dela ziurtatzeko, sistematik onena da Aldez Aurreko Borondateen Erregistroan sartzea.

14. I. Eranskina

Profesional Sanitarioentzako aholkuak

Profesional sanitarioek Aldez Aurreko Borondateen Dokumentuak pazientearen autonomiaren adierazpen gisa ikusi behar dute, eta zainketen plangintzaren prozesuan laguntzat hartu.

AABen dokumentuei dagokienez, gogoratu behar da praktika kliniko on batek berekin daramala gaixoaren borondatea errespetatzea, eta solaskiderik onena gaixoa bera dela, AABen dokumentua egina eduki edo ez. Salbuespen bakarra da osasun-egoeratik erabakirik hartu ezin duenean.

Kontuan hartu behar da pazientearentzat, orokorrean, garrantzitsuena dela puntu hauek ezagutzea:

- Bere osasun-egoera, gaixotasunean aurreikus daitezkeen ibilbidea eta aurretik zehazten diren konplikazioak.
- Aukera terapeutikoak, bizi-euskarrien tratamenduak barne direlarik, eta tratamendu bakoitzak eskaintzen dituen bizirik irauteko eta bizkortzeko aukerak.
- Hartutako erabakiak bere inguruan eduki ditzakeen ondorioak.

AABen dokumentuei dagokienez, profesionalak behartuta daude:

1. Dokumentu hauek onartzera.
2. Erabaki terapeutikoak hartu behar diren momentuan kontuan hartzea.
3. Hartutako erabakia historia klinikoan idatziz arrazoitzea, eta AABen dokumentuaren arabera jardun ezean, horrela egiteko arrazoiak esatera.

AABen dokumentuei dagokienez, honako aholkuak ematen zaizkie profesionali:

1. Egoera kritiko edo terminaletan AABen dokumentuak gaixoari eman ahal dion laguntzaz informatzea.
2. AABen dokumentua eskatzen duen gaixoa modu leial eta errealistan gidatzen laguntzea.
3. Pazienteak animatzea AABen dokumentua Erregistroan sartzera.
4. Dokumentua Erregistroan indarrean dagoen egiaztatzea.
5. Pazienteak AABen dokumentu bat egina duela idatziz jasota uztea, eta pazienteari dokumentuaren kopia bat eskatzea, historia klinikora sartzeko.
6. Egindako AABen dokumentuak interpretatzen laguntzea, eta aldizka eguneratzeke aholkatzea.
7. Erabakiak hartu aurretik ordezkaria ezagutzea, eta solaskide gisa kontuan hartzea.

Gaitasunaren ebaluazioa

Aldez aurreko borondateen dokumentua egitea pentsatuta dago, osasun-zainketetako arloan, pertsonak berez erabakirik hartzeko gaitasunik ez duenerako. Horregatik, eman beharreko lehenengo pausoa da, ezinbestean, gaitasun hori ebaluatzea. Behar besteko gaitasuna edukiz gero, erabaki sanitarioa hartu behar den momentuan pertsonak adierazten duena gailenduko da AABen dokumentuaren jarraibideen aurrean.

Erabakiak hartzeko ahalmen edo gaitasuna ez da kontzeptu absolutua erlatiboa baizik, muturreko egoeretan bakarrik aurkituko dugu guztietarako erabateko ezgaitasuna duen pertsonaren bat; horregatik, ulertu behar dugu pertsona batek gaitasuna eduki dezakeela erabaki batzuk hartzeko, beste batzuetarako, berriz, ez.

Kontuan hartu behar da ezgaitasun-egoera batzuk aldi baterako direla (arrazoi fisiko edo psikikoengatik), eta pertsona batek behin betiko ezgaitasuna duela kontsideratu baino lehen –orduan AABen dokumentua aplikatzen da – profesional sanitarioek saiatu behar dute, tratamendu egoki baten bidez, ezgaitasun hori konpontzen.

Hartutako erabakiaren egonkortasun-faktorea ere kontuan hartu behar da, izan ere, denbora laburrean, hartutako erabakiei buruz, gehiegi aldaketa dagoenean, pentsatu behar dugu ezintasuna dagoela erabaki zehatz hori hartzeko.

Ezgaitasunari buruz ez dago irizpide uniformerik, ezta baloratzeko sistema bakarra ere; hala ere, ondoren, gaur egun onarpen mailarik handiena dutenak jarriko ditugu:

Gaitasun-irizpideak:

- Aukera bat adieraztea: tratamendu baten alde edo aurka dagoen adierazteko gaitasuna (baiezkoa edo ezezkoa eman).
- Erabakia hartzeko garrantzitsua den informazioa ulertzea.
- Egungo egoeraren (osasun-egoera, hartu beharreko erabakiak) eta ondorioen jabe izatea.
- Informazioaren zentzuzko erabilera, erabaki bat hartzearen arriskuak eta onurak aztertzeko, prozedura logikoak erabiliz.



Jakina, erabaki bat hartu behar denean, ezinbestekoa da alde aurretik informazioa jasotzea; informazio hori profesionalak eman behar dute, pazientearen maila kultural eta emoziozko egoerari egokitua.

Arlo klinikoan, gaitasuna ebaluatzeko sistema batek ondoren adierazten ditugun pausoak izan ditzake:

1. Pazienteak komunikatzeko gaitasunik ba al du?
2. Tratamendua zein gaixotasunentzat proposatzen zaion ulertzen al du?
3. Ulertzen al du zein tratamendu mota den eta horren helburua?
4. Ulertzen al ditu tratamenduari jarraitzeak dituen onurak eta arriskuak?
5. Ulertzen al ditu tratamenduari ez jarraitzeak dituen onurak eta arriskuak?
6. Gaitasunik ba al du erabaki bat adierazteko?
7. Erabaki hori egonkorra al da?

Galdera hauei emandako erantzunen bat ezezkoa izanez gero, presazko ondorio batera ailegatu baino lehen, hobe da pazienteak nahikoa informazio duela ziurtatzea, eta horrela izango ez balitz, behar besteko informazio osagarria eman beharko litzaioke.

Pazientea galderari edo aipatutako pausoei modu egokian erantzuteko gauza ez balitz, erabaki zehatza hartzeko gaitasunik ez duela pentsa liteke.

Puntu garrantzitsuak

- AABen dokumentu batek berekin darama pazientearen eta profesionalaren arteko deliberazio-prozesu bat.
- AABen dokumentua baliagarriagoa izango da, baldin eta eguneroko harreman klinikoan sartzen bada.
- AABen dokumentua legeak arautzen du.
- AABen dokumentua pertsonak gaitasunik ez duenean bakarrik aplikatzen da.

15. II. Eranskina

Gidaliburuarekin lotutako kontzeptuak

- **Elikadura eta hidratazio artifiziala:** bena barnetik edo zunda baten bidez lagunduta, paziente bati elikagaiak eta ura ere ematea.
- **Autonomia:** pertsonaren gaitasuna erabakiak modu librean hartu, eta bere bizitzaren eta heriotzaren zenbait alderdi kudeatzeko.
- **Autopsia/nekropsia:** gorpu baten azterketa xehatua, heriotzaren arrazoia jakin edo heriotza eragin zuen gaixotasunari buruzko ezagutza zabaltzeko.
- **Bioetika:** Medikuntzaren eta Biologiaren alderdi etikoak, nahiz gizakiak gainerako bizidunekin dituen harremanak aztertzen dituen zientzia.
- **Bioetika klinikoa:** zientzia eta teknologia medikoa pertsona osasuntsuei edo gaixoei aplikatzean sortzen diren arazo etikoez arduratzen den Bioetikako arlo bat.
- **Jarduteko ahalmena - Gaitasuna:** pazientearen gaitasuna ondoko puntuak ulertzeko: aurrean duen egoera, zein alternatiba egon litezkeen jokatzeo garaian, eta alternatiba bakoitza aukeratuta aurreikusitako daitezkeen ondorioak. Era horretan, bere balio-eskalarekin bat datozen erabakiak hartu ahal izango ditu, bere adinaren edo egoera kognitiboaren arabera. Ez da egonkorra eta ez du egoera guztietarako balio; erabaki-motaren eta pertsonaren egoeraren baitan dago.
- **Asistentziaren Etikako Batzordea:** diziplinarteko taldea; bere helburu nagusia ondokoa da: erakunde instituzionalari berari, sanitarioei eta erabiltzaileei laguntzea, klinika asistentzian sortu litezkeen arazo etikoen arrazoen inguruan hausnartzen eta erabakiak hartzen, Bioetikaren ikuspuntutik.
- **Isilpekotasuna:** kontzeptu honek barne hartzen du profesoalek pazienteei buruz ezagutzen dituzten datuak nola babestu eta tratatu, informazioa ez eman edo mugatuz.
- **Interes-gatazka:** egoera horretan, pazienteak ordezkatzeko aukeratutako pertsonak edo pertsonak dituzten interesak eta pazienteak berak dituenak desberdinak dira edo izan daitezke.
- **Baimen informatua:** gai den eta behar bezala informatuta dagoen paziente batek libre, bere borondatez eta bere buruaren jabe dela ematen duen baimena, bere osasunari eragiten dion jardura sanitarioa aurrera eramateko.
- **Deliberazioa:** ekintza edo egoera jakin batean parte hartzen duten faktoreak aztertu eta neurtzeko prozesua, konponbiderik onena edo, hori ezin denean, tartean dauden balioak ahalik gutxienez kaltetuko dituen irtenbidea bilatzeko.
- **Ordezkapeneko erabakiak:** pertsona bat erabakiak hartzeko gauza ez bada, beste norbaitek hartzen ditu bere orde; oro har, arrazoi familiarak



edo izatezkoak direla-eta lotutako pertsonak izaten dira edo horretarako izendatutako ordezkaria. Gai ez izateaz gain, legeak pertsona ezgauzatzat jotzen badu, tutore legalak hartuko ditu erabakiak.

- **Gaixo kritikoa:** pertsona honen bizitzak oso eboluzio txarra izateko arriskua du, nahiz senda daitekeena izan, prozesu fisiopatologiko larria izateagatik.
- **Egoera begetatibo iraunkorra:** pazientea bere buruaren eta inguruaren jabe den frogarik ez dago, ez dauka pertsonekin erlazionatzeko gaitasunik. Ez dago frogarik baieztatzeko, ikusmen, entzumen, eta ukimenezko estimuluen eta min-estimuluen aurrean nahita hartu, errepikatu eta mantendu daitezkeen jarrerak daudela. Ulertzeko eta hitz egiteko gaitasuna duen frogarik ez dago. “Loaldi-esnaldi” zikloak dauzka.
- **Lehen eta bigarren mailako odolkidetasuna:** gurasoak, seme-alabak, aiton-amonak, bilobak eta anai-arrebak. Ezin dira agiriaren lekukoak izan.
- **Bihotz-biriketako bizkorketa:** bihotz eta arnas gelditzetik ateratzeko maniobra-multzoa. Lehenik, berezko arnasa eta zirkulazioa ordeztu egiten dira eta gero bere onera ekartzeko saio bat egiten da, garuneko funtzio guztiak berreskuratu ahal izateko.
- **Baliogabetzea:** egiletsitako alde aurreko borondateen agiria ezeztatzea da.
- **Ordezkaria:** pazienteak medikuarekin edo talde sanitarioarekin hitz egiteko izendatzen duen pertsona da, bere balioak eta jarraibideak interpreta ditzan, berak, ordezkatuak, bere kabuz adierazteko ezintasuna duenean.
- **Egoera terminala:** gaixotasun aurreratua, gero eta larriagoa eta sendaezina dagoenean, jarritako tratamendu espezifikoari erantzuteko arrazoizko aukerarik gabea, eta sei hilabetetik beherako bizi-itxaropena duena.
- **Desegokietsitako tratamendua:** egokietsita ez dagoena eta gaixoari kalteren bat eragiten diona edo, ustez, on baino kalte gehiago egiten diona.
- **Bizi-euskarriko tratamendu eta neurriak:** arnasa, bihotz-zirkulazioa eta giltzurruneko funtzioa egonkortzeko jartzen diren tratamendu eta neurriak, arnas edo bihotz-gelditzea saihesteko. Barne hartzen dituzte, era berean, azterketa, emergentzia-zerbitzuen alerta, garaiz esku-hartzea eta herritarren artean teknikak eta ezagutzak zabaltzeko aukera ematen duen heziketa-programa.
- **Aireztapen mekanikoa:** maskara edo trakea barneko tutuen bidez jartzen zaizkion aparatu mekanikoen bitartez, pazienteari arnas aparatuen euskarri partzial edo osoa (oxigenatzea eta aireztatzea) ematea.
- **Aldez Aurreko Borondateak:** adinez nagusia eta gai den pertsona batek, modu librean bere borondatea aldez aurretik adierazten du, berez adierazteko gauza ez den egoerara heltzen den mementoan bete dadin. Beste izen batzuk ere badituzte: aldez aurreko arauak, aldez aurreko jarraibideak edo bizi-testamentuak.

16. III. Eranskina

Aldez Aurreko Borondateen Dokumentua

Dokumentu hau eredia da, eta zainketen planifikazioan diharduten pertsonentzat (pazientea bera, pertsonal sanitarioa eta haren ordezkaria) lagungarria gerta daiteke, pazientearen egoera zehatzaren arabera dokumentu pertsonala idazteko orduan.

Nik,.....**(e)k, adinez heldua,**
(herria, PK, kalea eta zk.).....**(e)an bizi eta**
NA/pasaporte/txartel-zk......**dudanak,**
 erabakia libreki hartzeko gai naizelarik, eta gogoeta egiteko behar nuen informazioa jaso ondoren, honako hau adierazi nahi dut: dokumentu honetan aurrerago zehazten ditudan tratamenduak eta zainketak onartu eta/edo errefusatzen ditut, eta horrela kontuan hartzea nahi dut, nire egoera fisikoa eta/edo psikikoaren ondorioz, neure borondatea adierazterik ez daukadan egunean.

Nire tratamenduaren ardura duen medikuari eskatzen diot nire heriotza luzatzeko besterik ez diren tratamenduak kentzeko, edota horrelakorik ez hasteko, baldin eta sendaezineko edo atzeraezineko egoeran banago, hau da, sendatzeko itxaropen arrazoizkorik ez badago, hala nola:

- a) egoera terminalean banago.
- b) korderik gabeko egoera iraunkorrean egonez gero.
- c) gutxieneko kordea badut, non ez bainaiz gai, inondik ere, erabakiak hartzeko edo zer nahi dudan adierazteko.

Horrez gain, nire tratamendua ni erosoago sentitzeko eta mina edo oinazea arintzeko bakarrik izatea nahi dut, tratamendua ez egitetik edo kentzetik etor daitezkeenak ere barne.

Halaber, jakinik ere ez nagoela behartuta errefusatzen ditudan tratamendu guztiak zehaztera, tratamendu hauei uko egiten diedala adierazi nahi dut:

- Ez dut bihotz-biriketako bizkortzerik nahi.



- Ez dut aireztapen mekanikorik nahi.
- Ez dut inongo dialisirik nahi.
- Ez dut elikadura edo hidratazio artifizialik nahi.
- Ez dut antibiotikorik nahi.
- Ez dut _____.

Gainera, heriotza duina izateko behar dudan asistentzia ere nahi dut, mina ahalik gehiena arintzeko modukoa, bai eta heriotza aurreratuko badit ere.

Jarraibide hauek ere kontuan hartzea nahi dut:

- Organoak eta ehunak ematea.
- Nire bizitzako azken egunetan non zaintzea nahi dudan (etxean, ospitalean...).
- **Besterik** _____.

Izena
Data
Sinadura
NA

23

Ordezkaria izendatea

Nik, **(e)k,** adinez heldua,
(herria, PK, kalea eta zk.) **(e)an bizi eta**
NA/pasaporte/txartel-zk. **dudanak,**
jarduteko gaitasun osoa dudalarik,
izendatzen dut nire ordezkari, telefono-zk.
duena eta betetzen dituena Eusko Legebiltzarraren osasun-alorreko
aldez aurreko borondateei buruzko 7/2002 Legean, abenduaren 12koan,
2.3 (a) artikuluan zehaztutako baldintzak, eta, behar izanez gero,
berak hitz egingo du talde sanitarioarekin, erabakiak nire izenean har

ditzan eta dokumentu honetan adierazi dudan borondatea bete dadin.

Dokumentu hau interpretatzean zalantzarik izanez gero, nire ordezkariaren iritzia kontuan hartzea nahi dut, eta, hain zuzen ere, berari ematen diot baimena, dokumentu honetan jasota ez dauden tratamenduei buruzko erabakiak hartzeko, baldin eta neure kabuz erabakitzerik ez badaukat, eta, betiere, dokumentu honetan aldeztatik jasotako borondateekin kontraesanean ez badaude.

Ordezkaritza bat baino gehiago izenda daitezke.

Ordezkaritza onartzea (gomendagarria da)

Onartzen dut izendapena eta ados nago.....(r)en ordezkaria izatearekin, baldin eta bere atentzio sanitarioaz zer nahi duen adierazterik ez badauka. Ulertzen ditut ordezkatzeko dudan pertsonak dokumentu honetan zehaztu dituen jarraibideak, eta ados nago horiekin. Eta, nolatan ere, nire ordezkariaren zentzua du bakarrik neuk ordezkatzeko dudan pertsonak jarraibide hauek adierazterik ez badauka eta dokumentu hau aldeztatik baliogabetu ez badu.

Ordezkaritza izena

Data

Sinadura

NA

Dokumentu hau idatziz formalizatzen da, eta, pertsona egileleak, horretarako, hauetako prozedura bat aukeratzen du:

- a) Notarioaren aurrean.
- b) Aldeztatik aurreko borondateen euskal erregistroaz arduratzen den funtzionario edo enplegatu publikoaren aurrean.
- c) Hiru lekukoaren aurrean.



Lekukoaren adierazpena

Behean sinatzen dugunok, adinez helduak, jarduteko gaitasun osoa izanik, eta egileslearekin ez daukagularik ez ezkontza-harremanik, ez elkartze librerik edo izatezko bikoterik, ez odol zein ezkontza bidezko 2. mailara arteko ahaidetasunik, ez ondarezko harremanik, zera adierazi nahi dugu: aldez aurreko borondateen dokumentu hau sinatzen duen pertsonak guztiz kontziente sinatu du, eta, guk dakigula, ez dago epaileak ezgaituta, eta inondik ere ez diogu antzeman bere erabakia behartuta hartu duenik. Besterik gabe, egileslearen aurrean sinatzen dugu:

Lehenengo lekukoa

Izen-abizenak

NA

Sinadura

Data

Bigarren lekukoa

Izen-abizenak

NA

Sinadura

Data

Hirugarren lekukoa

Izen-abizenak

NA

Sinadura

Data

17. Araudia

- Giza eskubideak eta gizakiaren duintasuna babesteko **Akordia** Biologiaren eta Medikuntzaren aplikazioen aurrean. Oviedo, 1997.
- Pazientearen autonomia, eta informazio eta dokumentazio klinikoko gaiei buruzko eskubide eta betebeharrak erregulatzen dituen **azaroaren 14ko 41/2002 Legea**.
- Osasun alorreko Aldez Aurreko Borondateei buruzko **abenduaren 12ko Eusko Legebiltzarreko 7/2002 Legea**.
- **Eusko Jaurlaritzako 270/2003 Dekretua, azaroaren 4koa**, Aldez Aurreko Borondateen Euskal Erregistroa sortu eta arautzeko.



18. Bibliografia aholkatua

- Emanuel EJ, Emanuel LL. **The promise of a good death.** Lancet 1998; 351 Suppl 2:SII21-SII29.
- Peter A.Singer MMF, Gerald Robertson LL, David J.Roy SPD. Bioethics for clinicians: 6. **Advance care planning.** Canadian Medical Association Journal 1996; 155:1689-1692.
- Emanuel L. **Appropriate end inappropriate use of advance directives.** Journal of Medical Ethics 2001; 5(4):357-359.
- Education for Physicians on End-of-life Care (EPEC). Module 1: **Advance Care Planning.** 2000. <http://www.ama.assn.org/ethic/epec>
- Consideraciones sobre el Documento de Voluntades Anticipadas. <http://www.gencat.net/sanitat>
- Broggi M.A. **El documento de voluntades anticipadas.** Med Clin (Barc) 2001; 2001(117):114-115.
- Martin D.K, Emanuel LL, Singer P. **Planning for the end of life.** Lancet 2000; 356:1672-1676.
- Emanuel LL, von Gunten CF, Ferris FD. **Advance care planning.** Arch. Fam. Med. 2000; 9(10):1181-1187.
- June Leland. **Advance directives and establishing the goals of care.** Primary care: clinics in office practice. 2001: 349-363.
- Marínez Urionabarrenetxea K. **Reflexiones sobre el testamento vital** (I y II). Lehen Mailako Atentzioa 2003; Urtarrila, 31(1)
- Kolarik RC, Arnold RM, Fischer GS, Tulsy JA. **Objectives for advance care planning.** J. Palliat Med. 2002; 5(5):697-704.

19. 7/2002 Legea

7/2002 LEGEA, abenduaren 12koa, osasun arloko aurretiazko borondateena.

Eusko Legebiltzarrak ondoko legea onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei.

Abenduaren 12ko 7/2002 Legea, osasun arloko aurretiazko borondateena.

Zioen adierazpena:

Biologiaren eta Medikuntzaren aplikazioen aurrean giza eskubideak eta gizakiaren duintasuna babesteko hitzarmenak, Oviedoko Hitzarmena izenekoak (1997.eko apirilaren 4an Oviedon egin eta Europako Kontseiluko estatu kideek, beste estatu batzuek eta Europako Erkidegoak sinatu zuten), gaixoaren baimenaren gaiaz dihardu II. kapituluan. Arau orokor batekin hasten da kapitulu hori, eta, haren arabera, osasun arloko esku-hartzeren bat gauzatzekotan, esku-hartze horrek eragindako pertsonak bere baimena eman beharko du, askatasunez eta beharrezko informazioa jaso ondoren; esku-hartze horren xede eta izaeraren zein arrisku eta ondorioen gaineko informazio hori aldeztatik eman beharko zaio, eta egokia izan beharko du. Kapituluaren amaieran, bestalde, hau ezartzen du: gaixok medikuaren esku-hartze baten gainean adierazten dituen nahiak aintzat hartuko dira, esku-hartze hori gauzatzeko unean bere nahia adierazteko moduan ez badago ere. Horrela, bada, gaixo batek esku-hartze kliniko baten aurrean aldeztatik adierazitako nahiak informazioan oinarritutako baimena delakoaren zati dira.

Informazioan oinarritutako baimena delakoak bazeukan dagoeneko arauen babesa, Oviedoko Hitzarmena sinatu aurretik ere; Osasunari buruzko Lege Orokorraren 10. artikuluan, Osakidetzako Gaixo eta Erabiltzaileen Eskubide eta Obligazioen Kartan (uztailaren 18ko 175/1989 Dekretuak onartu zuen) eta Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 10.1 artikuluan honako eskubide hauek babestuta zeuden dagoeneko: herritarrek beren osasun-prozesuez informazioa jasotzeko eskubidea, mediku arduradunak emandako aukeren artean askatasunez hautatzeko eskubidea —edozein esku-hartze gauzatzeko aldeztatik idatzizko baimena emanez— eta zenbait kasutan tratamendua hartzeari uko egitekoa. Eskubide horiek guztiak pertsonaren autonomiaren printzipioaren isla dira; azkenaldian osasuneko profesionalen eta gaixoen arteko harremanetan behar-beharrezko balio bihurtu da printzipio hori.



Alabaina, gaixoen beren borondatea aldeztatik agertzeko aukera, bizi-testamentu, aldeztatik gidalerro, aldeztatik jarraibide edo aldeztiazko borondate deitutakoa, oraindik bereriaz onartu gabe zegoen Estatuko antolamendu juridikoan, nahiz eta azken hamarkadan gure kultur ingurune herrialde batzuetan arautzen hasita zeuden. Horrengatik, Oviedoko Hitzarmena berretsita, bidea ireki behar da autonomia-erkidegoek arautu ahal izan dezaten.

Lege hau ematen da, hain zuzen ere, herritarrek berei eragiten dieten erabaki klinikoan aurrean beren borondatea aldeztatik agertzeko duten eskubidea gauzaterik izan dezaten; eta legea emateko, Autonomia Estatuaren 18. artikulua barne-osasuneko gaietan Estatuaren oinarritzko legeria lege bidez garatu eta betearazteko Autonomia Erkidegoari ematen dizkion eskumenak erabili dira.

Gaixoen autonomia errespetatu eta sustatzean dago oinarrituta legea, eta, laburra izanagatik ere, aldeztiazko borondateen zein haiek jaso behar dituen agiriaren alderdirik garrantzitsuenak zehazten ditu. Beste autonomia-erkidego batzuek irekitako ildotik ez da gehiegi aldentzen, eta zuzenbidearen doktrinan gai honen inguruan agertzen hasi diren ekarpenak aintzat hartzen ditu.

Lehen-lehenik esan behar da aukeratu den aldeztiazko borondateen ereduak ahalik eta edukirik zabalena duela, bere baitan aukera hauek guztiak hartzeko modukoa: norberaren bizi-helburuak eta balioak agertzea; onartu edo baztertuko diren tratamenduen inguruko jarraibide zehatzak edo ez hain zehatzak ematea; behar balitz, medikuaren edo osasun-taldearen solaskide izango den ordezkaria edo ordezkariak izendatzea; bai eta bizitzaren amaierarekin zerikusia duten bestelako agindu batzuk ematea ere, hala nola organoak edo norberaren gorputza dohainik ematearen gainekoak zein autopsia kliniko edo antzekoen gainekoak. Uste izatekoa denez, aldeztiazko borondateen agiriaren edukia ere horixe berori da, pertsonen aitortzen zaizkien eskubideen katalogo baten gisa adierazi bada ere, zuzenean agiriaren beraren edukitzat agertu ordez.

Zuzenki arautu da, ordea, agiriaren formalizazioari dagokiona; benetakotasuna ziurtatzeko ahalik eta bermerik sendoenak emateko ahalegina egin da. Horrengatik, bada, egilearen beraren nahierara, notario baten aurrean, Aldeztiazko Borondateen Euskal Erregistroaren ardura duen funtzionarioaren aurrean edo hiru lekukoren aurrean egin behar da agiria, erregistroan inskribatu zein ez. Orobat, agiriaren eraginkortasuna arautzen da, bai eta haren aldaketa, ordezkapena edo ezeztatena ere.

Azkenik, Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroa sortzea aurreikusten da; hor, aurretiazko borondateen agiriak sartuko dira, agiri-egileek berek nahi badute. Oso tresna baliagarria izango da osasun arloko langileentzat zein gaixoentzat, aldez aurretik agertutako borondaterik badagoen edo ez jakiteko aukera emango dielako, beharrezko denean. Baliagarria izango da, batez ere, erregistro hau beste lurralde batzuetako gisa bereko erregistroekin lotzen bada, dagoeneko badaudenekin edo gerora sortzen direnekin.

1. artikulua.– Legearen xedea.

Hau da lege honen xedea: pertsonak medikuntzako zenbait esku-hartzeren aurrean beren borondatea aldez aurretik agertzeko duten eskubidea gauzatzeko bidea ematea Euskal Autonomia Erkidegoan, eta, horretarako, osasun arloko aurretiazko borondateen agiria arautzea.

2. artikulua. Borondatea aldez aurretik agertzeko eskubidearen edukia osasun arloan.

1. Adinez nagusi den pertsona orok, epai bidez gaitasuna kendu ez bazaio eta askatasunez ari bada, eskubidea du bere bizi-helburuak eta balioak nahiz medikuntzako tratamenduen inguruko jarraibideak adierazteko, bere nahia adierazi ezineko egoera batean dagoenean, bera artatzen duen medikuak edo osasun-taldeak errespetatu diezazkion.
2. Norberaren bizi-helburu eta balioak adierazteak xede hau du: jarraibideak interpretatzen laguntzea eta gida gisa baliatu ahal izatea, unea iristen denean erabaki klinikoak hartzeko.
3. Eskubidea du, orobat, ordezkari bat edo batzuk izendatzeko, medikuaren edo osasun-taldearen solaskide baliozko izan daitezen, eta ordezkari horri edo horiei bere balio eta jarraibideak interpretatzeko gaitasuna emateko.
 - a) Adinez nagusi den pertsona oro izan daiteke ordezkari, legezko gaitasuna kendu ez bazaio, honako pertsona hauek izan ezik:
 - Notarioa.
 - Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroaren ardura duen funtzionarioa edo langile publikoa.
 - Agiria egiteko aukeratu diren lekukoak.
 - Aurretiazko borondateak aplikatu behar dituzten osasun arloko langileak.
 - Agiriaren egilearen osasun-zainketa finantzatzen duten erakundeetako langileak.



- b) Ordezkaritzat aurretiazko borondateen agiria egin duenaren ezkontidea edo izatezko bikote-kidea izendatu bada, ordezkaritza hori amaitu egingo da ezkontza-deuseztasuna, banantzea edo dibortzioa eskatzeko demanda jartzen den unean bertan, edo izatezko bikotea edo elkartze librea era formalean desegiten den unean bertan. Izendapenak indarririk gal ez dezan, epaileak horretarako emandako ebazpenean hala adierazi behar da, ezkontza-deuseztasuna, banantzea edo dibortzioa gertatuz gero. Izatezko bikotea edo elkartze librea era formalean desegiten bada, agiri berri batean berariaz adierazi beharko da.
4. Tratamenduaren gaineko jarraibideak berdin izan daitezke aurretiazko borondateen agiria egiten duen pertsonak dagoeneko badaukan eritasun edo lesio baten ingurukoak zein gero izan ditzakeenen ingurukoak, eta, orobat, aurreikuspen hauek har ditzakete beren baitan: praktika kliniko egokiarekin bat datozen medikuntzako esku-hartzeetatik zeintzuk onartuko lituzkeen, zeintzuk ez, eta bizitzaren amaierarekin zerikusia duten beste gai batzuen inguruko aurreikuspenak.

3. artikulua. Aurretiazko borondateen agiria.

1. Aurreko artikuluan aitortutako eskubideak gauzatzeko bitartekoa da osasun arloko aurretiazko borondateen agiria.
2. Agiria idatziz formalizatuko da, eta agiria egiten duen pertsonaren esku dago ondoko prozeduretako zein erabili behar den erabakitzea:
 - a) Notarioaren aurrean.
 - b) Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroaren ardura duen funtzionarioaren edo langile publikoaren aurrean.
 - c) Hiru lekukoren aurrean.
3. Lekukoek adinez nagusi izan behar dute, jarduteko gaitasun osoa dutenak, eta ezin dute izan aurretiazko borondateen agiria egiten duenarekin ezkontza edo elkartze libre zein izatezko bikote-kidearen bidezko loturarik, ezta bigarren mailako odol- edo ezkontza-ahaidetasunik ere, eta ondare-harremanik ere ez.

4. artikulua. Agiria aldatu, ordezkatu edo ezeztatzea.

1. Aurretiazko borondateen agiria egin duen pertsonak edozein unetan alda, ordezka edo ezezta dezake agiri hori, baldin eta jarduteko gaitasuna edukitzen jarraitzen badu, lege honen 2.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta askatasunez jarduten badu.
2. Agiriaren aldaketa, ordezkapena edo ezeztapena 3.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera formalizatuko da.

5. artikulua. Eraginkortasuna.

1. Aurretiazko borondateen agiria egin duen pertsonak gaitasuna (lege honen 2.1 artikuluan xedatutakoaren arabera), jarduteko askatasuna eta adierazpenak egiteko modua eduki dauzkan artean, edozein esku-hartze klinikoren aurrean bere borondatea lehenago izango da agirian jarritako jarraibideak baino.
2. Aurretiazko borondateen agiria aldatu, ordezkatu edo ezeztatu egin bada, egiten den azken agiriaren edukia hartuko da kontuan.
3. Aurretiazko borondateen agiriko jarraibideak aplikatzerakoan antolamendu juridikoaren aurkakoak direla ikusten bada, edo agiria egiterakoan egileak aurreikusi zituen baldintzekin bat ez datozela, jarraibide horiek ez direla jarri joko da.
4. Orobat, hartu nahi lituzkeen medikuntzako tratamenduen gainean egindako jarraibideak desegokiak badira jasaten duen patologiarako, jarraibide horiek ez direla jarri joko da. Desegokitasun horiek gaixoaren historia klinikoan aipatu eta arrazoitu beharko dira.

6. artikulua. Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroa.

1. Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroa sortuko da, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailari atxikia, osasun arloko aurretiazko borondateen agiria egiten duten pertsonak, nahi badute, agiria bera edo haren aldaketa, ordezkapena edo ezeztapena inskribatu ahal izan dezaten.
2. Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroak printzipio hauen arabera jardungo du:
 - a) Erregistratutako agiriak isilpean gordeko dira, osasun arloko araudian eta datu pertsonalen babeserako araudian aurreikusten diren baldintzen arabera.
 - b) Aurretiazko borondateen edo aurretiazko jarraibideen beste erregistro batzuekin lotuta egongo da, bai eta osasun-laguntza ematea edo eskueran jartzea helburu duten beste erregistro batzuekin ere.
3. Aurreko idatz-zatian aurreikusitako erregistroen arteko lotura horren xede bakarra da agiri horiek egiten dituzten pertsonen aurretiazko borondateak benetan gauzatzeko bidea ematea; erregistroen artean datuak komunikatzeko ez da beharko pertsona horien baimenik.



7. artikulua. Osasun-zentroari aurretiazko borondateak jakinaraztea.

1. Aurretiazko borondateen agiria ez bada inskribatu Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroan, agiri hori egileari osasun-arta ematen zaion osasun-zentroan utzi beharko da.
2. Aurretiazko borondateen agiria Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroan inskribatu bada, nahierakoa izango da agiri hori egileari osasun-arta ematen zaion osasun-zentroan uztea.
3. Aurretiazko borondateen agiriaren egileari dagokio agiria osasun-zentroan uztea. Berak ezin badu, haren senitartekoek egin beharko dute, edo legezko ordezkariak nahiz agirian bertan izendatutako ordezkariak, edo, agiria inskribatuta badago, Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroak berak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabeturik geratzen dira lege honetan xedatutakoaren kontra dauden arau guztiak, bai eta lege honetan xedatutakoarekin bateraezinak direnak ere.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena.

Eusko Jaurlaritzak hamar hilabeteko epearen barruan sortuko du Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroa.

Bigarrena.

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteiz, 2002ko abenduaren 18a.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU

20. 270/2003 Dekretua

270/2003 DEKRETUA, azaroaren 4koa, Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroa sortu eta arautzekoa.

Abenduaren 12ko 7/2002 Legeak, osasun arloko aurretiazko borondateenak, 3.2 artikuluan dioenez, aurretiazko borondateen agiria idatziz jasoko da, eta agiri-emaileak notarioaren, Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroko arduradunaren —funtzionario edo langile publikoa—, edo hiru lekukoen aurrean egin beharko du. Lege berak aurrerago, hain zuzen ere, 6. artikuluan, Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroaz hitz egiten du eta artikulua horretako lehenengo idatz-zatian, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailari atxikia egongo den Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroa sortuko dela aurreikusten du. Erregistro horretan, agiri-emaileek osasun arloko aurretiazko borondateen agiri-ematea inskribatu ahalko dute, baita haren aldaketa, ordezkapena edo ezeztapena ere. Bukatzeko, lege horren azken xedapenetako lehenengoak Eusko Jaurlaritzari ezartzen dio erregistroa hamar hilabeteko epean sortzeko agindua.

Bi helburu nagusi ditu dekretu honek. Lehenengoa, dudarik gabe, agindutakoa betetzea, horretarako Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroa sortu eta arautzen dela. Eta bigarrena, aipatu legearen 3.2 artikulua garatzea, hau da, aurretiazko borondateen agiri-ematea —erregistroko arduraduna den funtzionario edo langile publikoaren aurrean egiten dena— arautzea. Erregistro baten berezko zereginari begiratua agiri-ematea zeregin desberdina dela ikusten da. Helburu horiek bete daitezke errezteko, aurretiazko borondateen agiriak jasoko duena arautzea oso baliogarria izango da; eta arautze hori dekretu honetan bertan egiten da.

Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroaren zeregin oinarrizkoak dira aurretiazko borondateen agiriak inskribatzea, eta, behar izanez gero, agiri-emaileak zaintzen ari diren medikuei helaraztea. Horretarako, aurretiazko borondateen agiriaren inskripzioa euskarri informatikoan egin behar da, eta mediku eta erregistroen arteko komunikazioa iraunkorra eta etenik gabekoa izan dadin behar diren mekanismoak ezarri beharko dira. Agiri horiek medikuek eta ez beste inork irakurri ahalko dituzte, salbu, agiri-emaileek beraiek. Osasun Saileko organo berri bat arduratuko da Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroaz, hain zuzen ere, Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroaren Bulegoa, horretarako bereziki sortua izan dena, eta osasun zerbitzuetako erabiltzaileen betebeharrak betetzen direla, eta eskubideak errepetatzen direla zaintzen duen zuzendaritzaren menpe egongo da, hau da, Ikerlan eta Garapen Sanitarioko Zuzendaritzaren menpe.



Aurretiazko borondateen agiria inskribitzeko, aldatzeko, ordezkatzeko eta ezeztatzeko prozedura ere arautzen da, eta aipatzekoa da, edozein dela eskabidea aurkeztzen den tokia, agiri horien konfidentziasuna bermatzen dela. Izan ere, agiri horiek kartazal itxi batean aurkeztuko baitira, eta Erregistroaren Bulegoko langileek baino ezin izango dute ireki.

Aurretiazko borondateen agiriak berak izan dezakeen eduki minimoa ere arautzen da. Hala ere, ez da eredu uniforme inposatu emaileak nahi duena askatasunez adieraz dezan.

Bukatzeko, dekretu honek Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroko ardura-dunaren figura ere arautzen du. Izan ere, erregistroarena berarena ez den, baina garrantzi handikoa den zeregina baitagokio berari, hau da, aurretiazko borondateen agiria ematea; eta zeregin hori erregistroaren egoitza kanpo bete ahalko du pertsonaren batek horrela eskatzen duenean.

Horregatik guztiagatik, Elkargo Ofizialak, eta sektore horretako gizarte elkarte adierazgarrienak entzun ondoren, Gizarte eta Ekonomia Kontseiluak irizpena eman duela, Aholku Batzorde Juridikoarekin bat eginik, Osasun sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2003ko azaroaren 4ko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren,

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Dekretu honen bidez, osasun arloko aurretiazko borondateen abenduaren 12ko 7/2002 Legean aurreikusten zen Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroa sortzen da.

2. artikulua.– Erregistroaren zereginak.

Honakoak dira Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroaren zereginak:

- a) osasun arloko aurretiazko borondateen agiria inskribitzea, aldatzea, ordezkatzeta eta ezeztatzea.
- b) inskribatzen diren agiriak zaintzea.
- c) aurretiazko borondateen agiri-emaileak atenditzen dituzten osasun zentroetako langileei agiri-emate horien berri ematea.

- d) agiri-emailea atenditzen ari den medikuari/ei agiriaren edukiaren berri ematea.
- e) herritarrei osasun arloko aurretiazko borondateen berri ematea.

3. artikulua.– Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroaren Bulegoa.

1. Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroaren Bulegoa Ikerlan eta Garapen Sanitarioko Zuzendaritzaren menpe dago, eta zuzendaritza hori da erregistroa kudeatuko duen unitate organikoa.
2. Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroan agiri-emaileei banakako arreta eta konfidentziala eskainiko zaie.
3. Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroaren Bulegoko langileek karguagatik duten informazioa isilpean gorde beharko dute.

36

4. artikulua.– Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroko arduraduna.

1. Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroaren Bulegoko arduraduna funtzionario edo langile publikoa izango da.
2. Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroko arduradunak formalizatuko du aurretiazko borondateen agiri-ematea, agiri hori aldatzea, ordezkatzeta eta ezezteza, osasun arloko aurretiazko borondateen abenduaren 12ko 7/2002 Legeak dioenaren arabera.
3. Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroko arduradunak egoitza kanpo formalizatu ahaliko du aurretiazko borondateen agiri-ematea, aldatzea, ordezkatzeta edo ezeztatzea, agiri-emaileak horrela eskatzen duenean.

5. artikulua.– Agiri-euskarri.

1. Edozein euskarritan jasotako aurretiazko borondateen edozein agiri onartuko du erregistroak, beti ere kautotasuna, osotasuna eta kontserbazioa bermatzen badu.
2. Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroan egiten diren inskripzioak euskarri informatikoan egingo dira, eta Norberaren Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak dioena beteko da.



6. artikulua.– Aplikazio eremua.

1. Adinez nagusia, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi dena, epai bidez gaitasuna kendu ez zaion eta askatasunez jokatzen duen edozein pertsonak eskatu ahalko du Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroan osasun arloko aurretiazko borondateen agiri-ematea inskribitzeko, hura aldatzeko, ordezkatzeko edo ezeztatzeko.
2. Halaber, Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroko arduradunaren aurrean formalizatu ahalko du osasun arloko aurretiazko borondateen agiri-ematea, haren aldatzea, ordezkatzea edo ezezteia.
3. Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroan inskribatuak dauden agirien eta horien edukinaren berri izatea, beti ere, dekretu honetan ezarritako baldintzak betetzen badira, osasun zentroetako langileei eta Euskal Autonomia Erkidegoan lan egiten duten medikuei baino ez zaie bermatzen. Horrek, hala ere, ez du esan nahi beste aurretiazko borondate edo aurretiazko jarraibideen erregistroekin konexiorik ez dela egongo.

7. artikulua.– Aurretiazko borondateak jasoko dituen agiriaren edukina.

1. Aurretiazko borondateen agirian, gutxienez, honakoak jaso beharko dira: agiri-ematearen izena, bi abizen, helbidea, nortasun agiriaren zenbakia, edo pasaportearena zein nortasuna egiaztatzeko balio dezakeen beste edozein dokumentuarena, bere tratamenduari buruzko jarraibideak, eta agiria non, noiz eta nola formalizatu den.
2. Agirian, halaber, agiri-ematearen bizitza helburuak eta baloreak adieraz daitezke, baita ordezkari bat edo gehiago izendatu ere.
3. Ordezkaria, edo ordezkariak izendatzekotan haien izena, bi abizen, nortasun agiriaren zenbakia, edo pasaportearena zein nortasuna egiaztatzeko balio dezakeen beste edozein dokumentuarena, helbidea eta telefono zenbakia adierazi beharko dira. Agiri-emateak berariaz adierazi beharko du osasun arloko aurretiazko borondateen abenduaren 12ko 7/2002 Legearen 2. artikulua 3.a) idatz-zatian xedatutakoa betetzen dutela.
4. Agiria hiru lekukoren aurrean formalizatzen bada, harekin batera lekukoen aitortpena jaso beharko da, hain zuzen ere, honakoak jasoko dituen a) adinez nagusiak direla, jarduteko gaitasun osoa dutela, eta agiri-ematearen ezkontideak edo izatezko bikote-kideak ez direla edo, bigarren mailera

bitarteko odol-ahaidetasuna edo nolabaiteko ondarezko harremana edo kидetasuna ez dutela.

b) agiri-emailea adinez nagusia dela, haiek dakitela, gaitasuna duela jarduteko, askatasun osoz jokatzen duela eta agiria haien aurrean sinatu duela.

Aitorpen honekin batera, hiru ordezkarien izena, bi abizen, nortasun agiriaren zenbakia edo pasaportearena zein nortasuna egiaztatzeko balio dezakeen beste edozein dokumentuarena, eta hiruren sinadura.

8. artikulua.– Aurretiazko borondateen agiri-ematearen inskripziorako prozedura.

1. Inskripziorako prozeduraren hasiera agiri-emailearen eskabidearekin hasten da. Eskabidea dekretu honen I. eranskinean dagoen ereduari jarraiki egingo da, eta harekin batera bertan dauden datuak zehazteko edo osatzeko egoki ikusten diren elementuak jarri ahalko dira.

2. Eskabidearekin batera, honako dokumentazioa eramango duen kartazal itxi bat aurkeztu beharko da:

a) nortasun agiriaren fotokopia, edo pasaportearena zein agiri-emailearen nortasuna egiaztatzeko balio dezakeen beste edozein dokumentuarena.

b) aurretiazko borondateen agiria notarioaren aurrean formalizatu bada, horren kopia eskuetsia.

c) aurretiazko borondateen agiria Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroko arduraduna den funtzionario edo langile publikoaren aurrean formalizatu bada, horren kopia kautoa.

d) aurretiazko borondateen agiria lekukoen aurrean formalizatu bada, jatorrizko agiria eta lekukoen nortasun agiriaren fotokopia, edo pasaportearen zein nortasuna egiaztatzeko balio dezakeen beste edozein dokumentuarena. Edozein dela erabiltzen dena indarrean egon beharko du.

3. Eskabidea eta harekin batera aurkeztu beharreko kartazala Osasun Saileko erregistro nagusian aurkeztu beharko da, edo Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 38.4 artikuluan xedatzen dituen lekuetan.

4. Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroko arduraduna den funtzionario edo langile publikoari dagokio aurretiazko borondateen agiria emateko bete behar diren legezko formaltasunak bete direla egiaztatzea. Lekukoen aurrean ematen denean, agiri-emailea adinez nagusia dela egiaztatu beharko da, baita



sinadurak, bai agiri-emailearena, bai lekukoena, egiazkoak direla ere. Azken egiaztapen hori egiteko, nortasun agirien fotokopietara jo beharko da, edo pasaporteenetara zein nortasuna egiaztatzeko balio dezakeen beste dokumentuarenera.

5. Eskabidea 1. idatz-zatian ezarritakoari jarraiki egin ez bada, edo berarekin batera 2. idatz-zatian adierazitako dokumentuak eramaten ez baditu, errekerimendua egingo zaio interesdunari akatsa zuzen dezan edo eskatzen zitzaizkion dokumentuak aurkez ditzan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71. artikulua dioenaren arabera.
 6. Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroko arduradunak du inskripzioaz erabakitze eskumena, eta ezeztatze arrazoia 7/2002 Legeak edo dekretu honek berak ezartzen dituen baldintzak ez betetzea izango da. Ezezten bada, ebazpen arrazoitua eman beharko da, eta eskabidea aurkeztu duen pertsonari horren jakinarazpena egin, hilabeteko epean.
 7. Ezarritako epearen barruan jakinarazpenik ez badago, baietsi dela ulertuko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 58. artikulua 4. idatz-zatian ezarritakoaren kaltetan izan gabe.
 8. Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroko arduradunaren ebazpenen aurka gora jotzeko errekurtsua jar daiteke lkerlan eta Garapen Sanitarioko zuzendariaren aurrean.
 9. Aurretiazko borondateen agiria Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroan inskribatuko da, estimatzeko eman den ebazpenaren egunetik kontatzen hasita, hiru egun balioduneko epean.
- 9. artikulua.**– Aurretiazko borondateen agiria aldatzea, ordezkatzea edo ezeztea.
1. Aurretiazko borondateen agiria aldatzen bada, agiriak eragina izaten jarraituko du, baina edukinean zatiren bat aldatuko da.
 2. Aurretiazko borondateen agiria ordezkatzen bada, dagoena eraginik gabe geldituko da, eta beste bat emango da haren ordez.
 3. Aurretiazko borondateen agiria ezezten bada, dagoena eraginik gabe geldituko da eta haren lekuan ez da berri bat emango.

10. artikulua.– Aurretiazko borondateen agiria aldatu, ordezkatu edo ezeztatzeko eduki beharrekoa.

1. Aldez aurretik emandako aurretiazko borondateen agiria aldatu, ordezkatu, edo ezezten duen agiriak, gutxienez, jaso beharrekoak honakoak dira:
 - a) agiri-emailearen izena, bi abizen eta nortasun agiriaren zenbakia edo pasaportearena zein nortasuna egiaztatzeko balio dezakeen beste edozein dokumentuarena.
 - b) aldatu, ordezkatu edo ezezten den dokumentua non, noiz eta nola formalizatu zen.
 - c) agiri-emaileak agiria aldatu, ordezkatu edo ezezteko duen borondatea.
 - d) aldaketa, ordezkapena edo ezeztapena non eta noiz formalizatzen den.
 - e) agiri-emailearen sinadura.
2. Lehenago emandako aurretiazko borondateen agiria berri batez aldatu behar bada, aurreko idatz-zatian aipatutakoez aparte, aurreko agiria eraginik gabe gelditu dela adierazi beharko da, eta agiri-emailearen tratamenduari buruzko jarraibideak erantsi beharko dira. Agiri-emailearen bizi-helburuak eta balioak ere sar daitezke, baita ordezkari bat edo gehiago izendatu ere, 7.3 artikulua dioenaren arabera.
3. Lehenago emandako aurretiazko borondateen agiria aldatu behar bada, artikulua honetako I. idatz-zatian aurreikusitakoaz aparte, argi eta garbi adierazi beharko da, aurreko agiriaren zein zatik jarraitzen duen indarrean, eta, zein gelditzen den eraginik gabe, baita sartzen den alde berriaren erredakzioa ere.
4. Agiria hiru lekukoren aurrean formalizatzen bada, dekretu honetako 7.4 artikulua xedatutakoaren arabera egingo da.

11. artikulua.– Aurretiazko borondateen agiriaren aldaketa, ordezkapena, edo ezeztapenaren inskripziorako prozedura.

1. Aurretiazko borondateen agiria aldatzea, ordezkatzeta edo ezeztatzea inskribitzeko prozedura 8. artikuluan xedatutakoa izango da.
2. Eskabidearen eredia dekretu honen II. eranskinean jaso da.



12. artikulua.– Aurretiazko borondateen agiria inskribitua duen agiri-emailearen eskubideak.

1. Aurretiazko borondateen agiria inskribitua duen agiri-emaileak kontsulta egin ahalko du Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroan, nahi duenean.
2. Aurretiazko borondateen agiriaren inskripzioa egiaztatzen duen ziurtagiria ere eskuratu ahalko du.

13. artikulua.– Osasun zentroetarako informazioa.

Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroak, agiri-emaileek baimena ematen dutenean, inskribatuak dauden agirien berri eman ahalko die osasun zentroei.

14. artikulua.– Inskribatutako agirien edukinaren berri izateko medikuek egin beharrekoa.

1. Pertsona bat tratatzen ari den medikuak garrantzi handiko erabaki klinikoak hartu behar baditu, eta gaixoa nahia adierazi ezineko egoeran badago, Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroa jo beharko du, eta pertsona horrek agiria inskribatua duen egiaztatu; baldin badago irakurri ahalko du.
2. Aurretiazko borondateen agiria ikusi ondoren, medikuak agirian bertan adierazten den ordezkariari jakinarazi beharko dio agiriak dioena; edo ordezkaria izendatua egon ezean, agiri-emailearekin lotura duten pertsoneri, bai familia lotura bai izatezkoa dutenei.

15. artikulua.– Sekretu-obligazioa.

Osasun langileek, mediku zein mediku ez direnak, lanpostua dela eta, aurretiazko borondateen agiriren baten berri dutenean, edo haren edukiarena, isilpean gorde egin beharko dute dakitena, 14.2 artikuluan xedatutakoaren kaltetan izan gabe.

16. artikulua.– Aurretiazko borondateen agirien zaintza.

1. Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroak inskribituta dauden agiriak bost urtez gordeko ditu agiri-emailea hiltzen den momentutik kontatua. Denbora hori pasatutakoan desegin ditzake.

2. Ezeztatu edo ordezkatu diren agiriak hiru hilabete pasa ondoren desegin daitezke, ezeztapen edo ordezkapenaren inskripzioaren egunetik kontatua.
3. 5.2 artikuluan aurreikusitako euskarri informatikoan erregistratuak dauden datuak inskribitzen den azkenengo dokumentuari dagozkio, eta artikuluko honetako 1. idatz-zatian xedatutako denboran zehar gordeko dira. Behin epe hori amaituz gero, balio gabetzea norberaren datuak babesteko araudiak diotenaren arabera izango da.

17. artikulua.– Beste erregistroekiko interkonexioa.

1. Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroak Aurretiazko Jarraibideen Estatuko Erregistroarekin izango du harremana, beti ere azaroaren 14ko 41/2002 Legeak eta bera garatzeko araudiak diotenaren arabera.
2. Aurretiazko Borondateen edo Jarraibideen bestelako erregistroekiko konexioa horretarako sinatzen diren lankidetzak hitzarmenetan ezarritakoaren arabera egingo da. Hitzarmen horiek norberaren datuen babeserako araudiak dioena errespetatu beharko dute.
3. Osasun-laguntza edo horretara heltzea ahalbidetzen duten fitxeroen arteko interkonexioa, dekretu hau indarrean sartzen denetik izango da.

18. artikulua.– Aurretiazko borondateen agiria erregistroko arduradunaren aurrean ematea.

1. Aurretiazko borondateen agiria Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroko arduradunaren aurrean ematen denean, agiri-emaileak bere burua identifikatu beharko du nortasun agiria baliatua, edo, balioa duen pasaporteak, baita adinez nagusia dela egiaztatu ere.
2. Agiri-ematea ez da gertatzen Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroko arduradunak agiri-emailea askatasunez ez dela jokatzen ari uste badu.
3. Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroko arduradunak agiri-emailearen gaitasunaren inguruan zalantza izanez gero, agiri-ematea eten dezake haren inguruan Erregistro Zibilak emandako egiaztagiria lortu arte.
4. Aurretiazko borondateen agiria kautotasuna, osotasuna eta kontserbazioa bermatzen duen edozein euskarritan eman daiteke.



5. Aurretiazko borondateen agiri-ematea bukatu ondoren, agiri-emaileari eskatzen duen beste jatorrizko kopia emango zaio.
6. Aurretiazko borondateen agiria aldatzea, berri batez ordezkatzeta, edo ordezkatu gabe ezeztatzea, artikuluko honen aurreko idatz-zatietan xedatutakoari jarraiki egin behar da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. *Teknika eta baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoak.*

Osasun Sailak dekretu honetan araututako erregistro jarduketetarako, bereziki notario aurrean edo Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroko arduradunaren aurrean formalizatzen diren aurretiazko borondateen kasuan, teknologia elektroniko, informatiko eta telematikoak erabiltzea sustatu egingo du.

Bigarrena. *Udal erregistroetan inskribatutako aurretiazko borondateen agiriak.*

1. Osasun Sailak Euskal Autonomia Erkidegoan bizi-testamentuen edo aurretiazko borondateen erregistroak dituzten udalekin lankidetzaz hitzarmenak sinatuko ditu, dekretua hau indarrean sartu baino lehenago erregistro horietan inskribatuak dauden aurretiazko borondateen agirien xedea zein den zehazteko.
2. Agiri horiek Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroan inskribatu ahaliko dira formalizazioan eta edukinean dekretu honek xedatutakoaren arabera, eta emaileek berariaz adierazten badute.

Vitoria-Gasteizen, 2003ko azaroaren 4an.

Jaurlaritzako lehendakariordea, Osasun sailburua,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN **GABRIEL M.^a INCLÁN IRÍBAR**

Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroa sortu eta arautzen duen azaroaren 4ko 270/2003 DEKRETUaren I. ERANSKINA

AURRETIAZKO BORONDATEEN AGIRI-EMATEA INSKRIBATZEKO ESKABIDEA

Eskatzailearen izen-abizenak:.....

.....

Nortasun agiriaren zenbakia, pasaportearen edo nortasuna egiaztatzeko balio dezakeen beste edozein dokumentuarena:.....

Helbidea:

Posta kodea:..... Udalerria:.....

Telefonoa:.....

ESKATZEN DUT eskabide honekin batera doan kartazal itxiaren barruko agiria Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroan inskribatu dadin.

AITORTZEN DUT Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroak agiriaren edukina ni atenditzen nauen medikuari jakinaraziko diola badakidala, beti ere, nahia adierazi ezineko egoera batean nagoenean, eta garrantzizko erabaki klinikoak hartu behar ditunean.

BAIMENTZEN DUT Erregistroa osasun zentroetako langileei agiria dagoela ofizioz jakinaraz diezaien (ez edukina).

BAI EZ (X ipini dagokion tokian)

Eskatzaileak non, eta noiz sinatzen duen, baita sinadura ere.

....., (e)ko aren (a)

SINADURA

AURRETIAZKO BORONDATEEN EUSKAL ERREGISTROKO ARDURADUNA. OSASUN SAILA.



Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroa sortu eta arautzen duen azaroaren 4ko 270/2003 DEKRETUAREN II. ERANSKINA

AURRETIAZKO BORONDATEEN AGIRIAREN ALDAKETA, ORDEZKAPENA, EDO EZEZTAPENA INSKRIBATZEKO ESKABIDEA

Eskatzailearen izen-abizenak:.....

.....

Nortasun agiriaren zenbakia, pasaportearen edo nortasuna egiaztatzeko balio dezakeen beste edozein dokumentuarena:.....

Helbidea:.....

Posta kodea:..... Udalerria:.....

Telefonoa:.....

ESKATZEN DUT eskabide honekin batera doan kartazal itxiaren barruko agiria Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroan inskribatu dadin; horren helburua da

EZEZTATZEA ORDEZKATZEA ALDATZEA (X ipini dagokion tokian)

honako datuak dituen aurretiazko borondateen agiria:

Formalizatu zen lekua eta eguna:.....

Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroan sartzea baimendu zuen ebazpenaren data:.....

AITORTZEN DUT Aurretiazko Borodateen Euskal Erregistroakagiriaren edukina ni atenditzen nauen medikuari jakinaraziko diola badakidala, beti ere, nahia adierazi ezineko egoera batean nagoenean, eta garrantzizko erabaki klinikoak hartu behar dituzenean.

BAIMENTZEN DUT Erregistroa osasun zentroetako langileei agiria dagoela ofizioz jakinaraz diezaien (ez edukina).

BAI EZ (X ipini dagokion tokian)

Eskatzaileak non, eta noiz sinatzen duen, baita sinadura ere.

....., (e)ko aren (a)

46

SINADURA

AURRETIAZKO BORODATEEN EUSKAL ERREGISTROKO ARDURADUNA. OSASUN SAILA.